

Donostian, Diputaziñoan,

Maipuru: Etxaide jauna.

Euskaltzaiñak: Irigaray, Villasante, Lekuona ta Mitxelena jaunak.

Urgazleak: Zaitegi ta Etxaniz jaunak.

Oi den otoitzez asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri ta onetsi da.

Ordaindu bekio Valverde jaunari bost milla peseta *Abarrak* argitaratzearen leen emaitza.

Caracas-tik Libreria Izarra-ko Eduardo de Nafarrate jaunak idatzi duen karta bat irakurri da. **Euskera** aldirokoa aterako dela jakin du, Euskaltzaindiak jakinerazteko egin dituen orrien bidez eta an zabaltzeko eskabidea egiten du eta baita arako salneurria. Idatzi bezaio Irigoyen-ek bere iritzia eskatuz orretan eta nola egin ditekian diruaren aldaketa.

Irigoyen-ek adierazten du **Euskera**-rako irureun suskritore inguru daudela eta errebista bere kabuz bizi aal izango dela.

Egin bitez **Euskera**-ren idazle bakoitzentzat ogetabost separata, lanaren ordaingarri.

Zaitegi jaunak erdal-euskal iztegia aipatu du, Euskaltzaindiak bere gain zuen eta eduki bear lukean iztegia, naiz eta kanpokoek batek bere bat egin. Bere iritziz obe da iztegi tipi bat, idazleen lagungarri, eta ez Azkue zanak zuen asmoa, au da, sinonimo ta abartxo guztiak sartzea. Esan zen nola gauza au leen ere asmotan artua zegoen. Galdetu zitzaion Irigaray jaunari eskuartearen darabiltenari buruz eta mantsu dijoazte-la erantzun zuen.

Euskal dotriñari buruz: Zaitegi-k galdetzen du ia ez litzaken komeni Obispo jaunari eskabideak egitea, orretan lege bat jarri dadin eta ez apaiz bakoitzaren eskuetan egon. Au leen ere aipatu zen batzar batean eta joateko asmoa artu. Lojendio jaunak adierazten du alde orretarik eztagoela zeregin aundirik eta obe dela zuzenki aritu apaizekin, bear diren liburuak argitaratuz, bai eleiztarrentzat eta bai apaizen iturruak betetzeko.

Aita Villasante-k Arantzazuko jubileo urtea dela ta, ia Euskaltzaindiak batzar moduko bat egin dezaken jai bat antolatuz eskatzen du. Aztertuko da asmo au.

Besterik gabe oi den otoitzez amaitu da batzarra.